

BANAKETA ETA KOMUNIKAZIO KANALAK

Banaketa kanalei dagokionez, gure aplikazioa (doako deskargakoa) *Android* zein *iOS*-en egongo da eskuragarri. Hau da, edozein mugikor edo dispositibotan deskargatu ahal izango da. Hau ikusita, gure banaketa kanala zuzena izango da.

Komunikazio kanal gisa, bestalde, kontakturako balioko duen eta informazioa eskuragarri izango duen webgunea eta sare sozialak izango ditugu. Kanal hauen helburua gure aplikazioa ezaguna bihurtzea da, bezero gehiago erakartzeko. Gure produktuan interesa duten establezimenduetarako *e-mail* eta telefono zenbaki berezi bat izango dugu, webguneko bere atal propioan adierazita. Hauek, noski, ez dira aplikazioaren erabiltzaileentzat bideratutako ez telefono ez *e-mail* berdinak izango. Banaketa kanalen antzera, kanal zuzenak dira hauek ere. [“Bezeroekiko Harremana” izeneko atalean garatuta].

